...eta kitto!
683 zkia. 2009-VI-19 ASTEKARIA



# San Juan txupinazoaren zain

BELARDENDA
MIKAITZ
DIETETIKA ETA ELIKAPENA

- Medikuntza alternatiboa: Naturopatia - Iridiologia - Bach loreak
- Argaltzeko eta osasunaren aldeko dietak *Nova-Line* metodoa
- Elikadura osasungarria: Makrobiotikoa, Begetarianoa, Biologikoa
- Landareekin egindako kosmetika produktuak
- Kirolarientzako konplementoak
- Produktu terapeutikoak
- Kosmetika naturala

Sendabelarrak denondako onuragarriak

Julian Etxeberria, 8 -EIBAR-
☎ 943 20 01 93

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

CRF AMOSTEGI

* Fisioterapia
* Logopedia
* Kirol medikuntza
* Osteopatia
* Perineologia
* Ama izateko prestakuntza





R.P.S. 28/07

Muzategi 2 behea (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegui.com – www.crf-amostegui.com



R.P.S. 5508

Beittu Zentro Optikua

Markarik onenak preziorik onenean.

OAKLEY
BALENCIAGA
QUIKSILVER
PRADA
...

amplifon



Eskaintza hau indarrean egongo da **maiatzaren 18tik uztailaren 18ra arte**.
Baliagarria 5 oinarriko montura guztietan. zilindroa -2, esfera +/-3ra artekoa.
Ezin daiteke beste eskaintza edo promozioekin bateratu.

J. Etxeberria, 13 Tfnoa. 943 700 230

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
Ekhi Belar
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Leire Iturbe,
S. Hernandez eta E. Belar.
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA:**
Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ihintza Fernandez
**TIRADA:**
*8.100 ale*
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ESKAPADA.-** Arrisku haundi batetik ozta-ozta libratu. *"Eskapada makaletik urten dau uste baiño hobeto".*
**ESKERA.-** Sasitza, sastraka. *"Erbixa eskerian sartu dok eta oiñ ez dago harrapatzerik"*

# ESKUTITZAK

### 1000 BAIETZ!

1998an, bazkide kanpaina prestatzeko bilera batean, Fernando Muniozgurenek goiburu edo slogan moduan "1000 baietz!" bota zuen mahai gainera. Orduan 400 bazkide inguru zituen elkarteak eta atrebentzia handia iruditu zitzaigun hain helburu altua jartzea. Baina Fernandok uste zuen Eibarren bazirela 1000 euskalzale proiektua bultzatzeko prest, izena emateko prest. Hala ere, azkenean beste goiburu batzuk erabili ziren kanpaina hartan: euskara jorratuz, euskara maitatuz, euskara zabalduz, euskara dastatuz.

Handik hona, goiburu ezberdinak erabili izan ditugu, eta aurtengoa "Izan gure ostrua!" da.

Gaur egun 800 bazkide baino gehiago gara eta Fernandoren atrebentzia hura neure egiten dut: 1000 baietz!

JULIAN FERNANDEZ

## asteko HEMEROTEKA esaldia

*"Ez dakit konturatzen garen. Niri askotan esaten didate kide sozialista katalanak eta galegoak katalanez eta galegoz dihardutela eta hemen zergatik ez ote den egiten euskaraz. Nik maliziaz erantzuten dut: Hemen diputatu nazionalistek euskaraz hitz egiteko ez dutelako denborarik. Iruditzen zait hori errealitate soziolinguistikoaren isla dela"*
*(Ramon Etxezarreta, Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuordea)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



## Ekaiñak 19, barixakua

19.30.- Dantzari Eguna, Klub Deportibuak eta Kezka Dantza Taldiak antolatuta. Untzagan. 23.00.- Rock kontzertua: Su Ta Gar 20 urte. Untzagan.

## Ekaiñak 20, zapatua

10.30.- San Juan Pelota Txapelketaren finalak, Klub Deportibuak antolatuta. Astelena frontoian. 11.00.- San Juan XVIII. Tiro Txapelketia, haizezko armekin, Dinbi-Danbak antolatuta. Hezkuntza Esparruan. 14.00.- I. San Juan Waterpolo Txapelketia, Urbat I.K.E-k antolatuta. Ipurua kiroldegixan. 18.00etatik 20.00etara.- Arku-tirua, Urko Arkulari Klubak antolatuta. Txaltxa Zelaiko kioskuan. 23.00.- Kontzertua, Fundación Tony Manero taldiarekin. Jarraixan, Arno DJia. Untzagan.

## Ekaiñak 21, domeka

07.30.- Zezen plazara kalejiria eta goiz-erestia Elgoibarko Dultzaineruekin. 08.00.- Enbolauak, Marqués de Sakako bigantxekin. Zezen plazan. 12.00.- Ipurua Gimnasia Erritmiko taldiaren erakustaldixa. Untzagan. 18.00.- Errekortadorien jaialdixa, Marqués de Saka ganadutegixak antolauta. Sarreria: 3 euro umiendako, 6 euro helduendako. Zezen plazan. 19.30.- Dantza emanaldixa Lacasiun Latinamerikako andren Eibarko alkartiaren eskutik. Jarraixan, 22.00ak arte, Imanol DJxak Latinamerikako musikia ipiñiko dau. Untzagan.

## Ekainak 22, astelehena

Egun osuan, barrakak prezio berezixan (0,70 eurotan).

17.00etatik 20.00etara.- Umiendako puzgarrixak eta zezen mekanikua, Astixaren eskutik. Untzagan. 17.00etatik 21:00etara.- Musika-tresnen taillarra, umiendako. Untzagan. 20.00.- Umiendako antzerkixa: 'Egipton Gertatuak' antzezlana Potxin eta Patxin konpaiñiarekin. Untzagan. 20.30.- Sostoa Abesbatzaren San Juan kontzertua. San Andres elizan.

AMAÑA
FONTANERIA
■ Kalefakzio Instalazioak
■ Sukaldeak eta Bainuak
■ Galdara eta Berogailuen Instalazioak
■ Butano, Propano eta Gas Naturalaren Instalazioak
■ Azterketa eta Proiektuak Ordenadorez
■ Aire egokitua
T. Anitua 12
Telefonoa. 943 201 930
fonta.amana@gmail.com

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
EIBAR
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04
1 Kardiologia
2 Zirugia
3 Dermatologia
4 Dietetika eta Nutrizioa
5 Analisi Klinikoak
6 Ortodontzia
7 Otorrinolaringologia
8 Pediatria
9 Psikiatria
10 Radiologia
11 Traumatologia
12 Barne Medikuntza
13 Koloproktologia
14 Erizaintza
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea



## Ekaiñak 23, martitzena

10.30.- Santuari zapixa jarriko jako. Ospittalian. 11.00.- Sanjuanetako Zortzikua, Usartza Txistulari Bandaren eskutik, musikuak lagunduta. Untzagan hasitta. 12.00.- Kuadrillak Untzagan alkartuko dira, Urkizuraiño Furgo-Farrarekin juateko. Jarraixan salda eta txorizo jana, Gaste alkartiak antolatuta. 13.00.- Lizarrako Dultzaineruerі ongietorrixa, Estaziñuan. Jarraixan, Untzagaraiño kalejiria, Udalbatzak, Sostoa abesbatzak, As Burgas Galiziako kultur etxeko eta Eibar Rugbi Taldiaren ordezkarixak eta kuadrillak lagunduta. 13.30.- Pregoia eta jaixeri hasieria emoteko txupinazua. Udaletxeko balkoittik. Jarraixan txanpanada Gaste alkartiaren eta Eibarko tabernarixen eskutik. Untzagan. 13.45.- Sanjuanetako kartel lehiaketaren eta alkohol larregi edatiaren kontrako pegatina lehiaketaren sari banaketia. Udaletxian. 17.30.- Kuadrillak Untzagan alkartuko dira, zezen plazaraiño kalejiran juateko, fanfarre eta Furgo-Farrarekin. 18.00.- Kuadrillen arteko jokuak. Zezen plazan. 19.30.- Enbolauak, Marqués de Sakako bigantxekin. Zezen plazan. 19.00.- Debako Erraldoiak konparsaren kalejiria, Urkizutik Untzagaraiño, Lizarrako Dultzaineruen laguntasunarekin. 19.00.- Salbea Parrokixako abesbatzarekin. San Andres elizan. 19.00.- Kalejiria Sugarri fanfarriarekin, Untzagan hasitta. 19.30.- Kale antzerkixa Hortzmuga taldiarekin. Untzagan. 21.00.- Kuadrillak kalejiran juango dira zezen plazatik Untzagaraiño. 23.00etatik 04.00etara.- Berbenia, Lisker taldiarekin. Untzagan. 23.00.- San Juan Sua eta Eibarko Dantza Garaikide taldiaren emanaldixa, ...eta kitto! Euskera Elkartiaren eskutik eta Queimada, As Burgas Galiziako kultur etxiaren ardurapian. Untzagan. 24.00.- Danborradaren Alardia. Jarraixan San Juan Kantua. Untzagan.












## Ekaiñak 24, eguaztena

05.00.- Txokolate-jana, Urbat I.K.E-ren eskutik. Untzagan. 07.30.- Kalejiria Lizarrako Dultzaineruekin. Zezen Plazara juan-etorrixa, eta goiz-erestia. 08.00.- Enbolauak, Marqués de Sakako bigantxekin. Zezen plazan. 12.00.- Kantautako mezia, Parrokixako abesbatzarekin. San Andres parrokixan. 12.45.- Ertzantzaren Musika Bandaren San Juan Kontzertua, Lizarrako Dultzaineruek lagunduta. Untzagan. 15.00.- San Juan Tiro Txapelketa Nagusixa, usakumiekin. Sociedad de Tiro al Vuelo alkartiak antolatuta. Arraten. 17.00.- Pelota jaialdixa. Astelena frontoian. 19.00.- Umien Danborradaren hasieria, Oria eta Ustekabe fanfarriekin. Urkizun. 20.30.- Umien Pregoia, Umeen Danborradako Danbor Nagusixak irakorritta, eta Alardia. Untzagan. 22.00etatik 23.00etara eta 00.15etik 02.30xetara. Berbenia Dama orkestrarekin. Untzagan. 23.30.- Soka-dantza Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldiarekin, eta Sostoa Abesbatza eta As Burgas Galiziako Kultur Etxeko ordezkarixekin. Untzagan. 24.00.- Suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.






## Ekaiñak 25, eguena

**05.00.-** Txokolate-jana, Urbat I.K.E-ren eskutik. Untzagan. **07.30.-** Kalejiria Lizarrako Dultzaineruekin, eta goiz-erestia. **11.00.-** Circomotik, umiendako malabar taillarra. Untzagan. **11.30.-** San Juan XVI. Marmitako Lehiaketia. Untzagan. **14.00.-** Herri-bazkarixa. Jarraixan karaoke, txiste eta irrintzi lehiaketia. Gaste alkartiaren eskutik. Untzagan. **17.00.-** Erraldoi eta buru-haundixen kalejiria, Lizarrako Dultzaineruak lagunduta. Urkizutik Untzagaraiño. **18.00.-** Ganso&Cía taldiaren eskutik, 'Renato' antzezlana. Untzagan. **19.00.-** Euskal Jaialdixa, Ziriako Ortiz de Zaratek aurkeztuta eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Untzagan. **20.00.-** Dantzaldixa Arno DJarekin. Untzagan. **20.30.-** Cielito Musika Bandari eta Usartza Txistulari Bandari omenaldixa, Auzokoak alkartiak antolatuta. Jaiki soziedadian. **23.00.-** Suzko erroberak Astondoa pirotekniaren eskutik. **23.15.-** Berbenia antziñako doiñuekin, Cielito Musika Bandaren eskutik. Untzagan.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

publi resa
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97
Publi.resa@euskalnet.net

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com
UTHEMEK
UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.
SPK- Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

## Ekaiñak 26, barixakua

12.00.- San Pedroko toka eta igel-toka txapelketia. 17.00.- Tute eta Mus txapelketia. 17.00.- Umiendako txokolate-jana. 18.00.- Umiendako jokuak (lapikuak apurtzen, zaku-lasterketak...). 19.00.- Gorriti eta bere aberiak. Beheko Tokia jubilau etxekuak antolatuta. Karmen kaleko parkian. 22.30.- Musika Eskolako Mariachixa eta Voces y Cuerdas taldiaren kontzertua. Urkizun.



## Ekaiñak 27, zapatua

12.00.- Aizkolari eta harrijasotzaillien erakustaldixa, Bihurriren eskutik, eta toka eta igel-toka txapelketaren sari banaketia. 13.30.- Piskolabisa. 18.00.- Duo Plaentxiren emanaldixa. 22.00.- Dantzaldixa, Tukan taldiarekin. Beheko Tokia jubilau etxekuak antolatuta. Karmen kaleko parkian. 16.00.- Eibarko Hiria XXV. Xake Joko Azkarrak, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Eibarko Klub Deportibuak antolatuta, Untzagan. 19.00.- Umiendako antzerkixa: 'Mementu Ridikoli' antzezlana, En la lona taldiaren eskutik.

## Ekaiñak 29, astelehena

11.00.- San Pedroko mezia eta konjurua, Akondia Basarrixan.

## Uztaillak 5, domeka

Ipuruako Bolatokixan, Eibarko Hiria XXIII. Bolo-Jokuaren Finala, Casa de Cantabriak antolatuta.

Juan Gisasola, 12-14
Tfnoak. 943 20 39 02 - 943 70 13 95
BENICOBA
Etxeko tresnak Sukaldeko altzariak
BEHAR DUZUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU
BALE HAU aurkeztuz %5eko deskontua zure erosketetan
*Ofertetako produktuetan kenduta. Ez da bateragarria.
Irailaren 30era arteko eskaintza

trinmer
Telekomunikazio Instalaziorako Enpresa
-
1.305 zkia.
TB seinalea jasotzeko antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB
TB digitala • Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua
tdt trinmer
www.trinmer.com
Ego-Gain, z/g • Tel: 943 127 350 Faxa: 943 207 360

# Sanjuanetan ere zuen zerbitzura!!!


SOKOA
EIBAR - ONDARRU
birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00
SOKOA

EIBAR
LURPE DANCE SQUAD
DISCO BAR
Ondo pasa herriko jaietan!
Untzaga 5, behea

KATU KALE
TABERNA
BIDEBARRIETA, 1

EZ DOK PUB
EIBAR
TABERNA
PIZZERIA
BOKATERIA
BOSSA
Ego gain z/g
(Arrate hotelaren alboan)
943 20 67 53

MAIXA
TABERNA

Calbeton, 8

telepizza®
943 20 89 89
San Juan, 15
une biribilak
Zatoz Sanjuanetan!

**zubi gain** KAFETEGIA
Urkizu pasealekua, 11 - behea    Tfnoa. 943-254060


Ogitarteko,
kazuelita,
tapetan...
espezializatuak
Zorionak eta ondo pasau jaixetan!

## Urki auzoko jai arrakastatsuak

**EGURALDIA LAGUN, BARIXAKU ETA ZAPATUAN** jai giroan buru-belarri murgildu zen Urki auzoa eta domekan, euria egin arren, horrek ez zien jaia zapuztu ez ume ez nagusiei. Arrateko Andra Mari ikastetxean eta inguruan ez zen aspertzeko aukerarik egon!





## Galdaramiñoko mendi lasterketa

**URKI-GALDARAMIÑO-URKI IBILBIDEA AMAITZEN** lehena izan zen Joseba Altuna, horretarako 37 minutu eta 39 segundo erabilita. Auzoko jaien barruan lehenengoz antolatutako mendi lasterketan 29 lagunek hartu zuten parte. Hainbat sari banatu zituzten korrikalarien artean, mailaren arabera. Mendi-lasterketan parte hartu zutenek zazpi kilometro eta erdiko ibilbideari aurre egin behar izan zioten, zati batzuetan 530 metroko desnibelari aurre eginez. Probako argazkiak eta sailkapenak ikusteko http://www.mendilasterketa.blogspot.com/ helbidera jo daiteke.

## Atzegikoen jaialdia giro onean

**DOMEKAN ATZEGI ADIMEN URRITASUNA DUTENEN** elkarteak urteroko familia topaketa ospatu zuen. Eibar eta inguruko herrietatik etorritako 100 bat lagun elkartu ziren Arrate hotelean egindako bazkarian eta, ondoren, dantzan egiteko aukerarik ez zuten galdu nahi izan.















## Boxeoa eta sanda Astelenan

**URTETIK URTERA PUBLIKO GEHIAGO ERAKARTZEN** duen boxeo gaua bizi izan zen barixakuan Astelena frontoian. Lau borrokaldi izan ziren lehen zatian Jonathan Bolaños vs Gaga (Gaga garaile), Kerman Castro vs Bilal (Bilal garaile), Tomas Stepinski vs Khalid (Stepinski garaile) eta Aitor Celaya vs Gorka de Jesús (Celaya garaile). Ondoren, sanda erakustaldia eskaini zuten Euskadi eta Valentziako ordezkariek, tartean Ramón Quina eibartarrak. Aurrez aurre izan zuen Pedro Morcillok oso maila ona erakutsi arren, Quina erraz gailendu zitzaion.






## Mustra txakurrak



**EGURALDI PAREGABEA LAGUN, JENDE ASKO** gerturatu zen zapatuan Arratera, batzuk zuzen-zuzenan bertan jokatutako mustra txakurren lehiaketak erakarrita eta beste batzuk, berriz, behin bertan egonda ez zuten galdu nahi izan txakurrek egun osoan eskaini zuten ikuskizun bikaina.

## Garagardo jaiaren amaiera domekan Unben

**URTEROKO MODUAN EIBAR RUGBI TALDEAK** Garagardo Feria antolatu du. Martitzenean zabaldu zuten Untzagako karpa eta aurtengo gonbidatu berezia 50 urte bete dituen Kezka Dantza Taldea izan da. Taldeko dantzariak izan ziren 'txotxa' egiteko arduradunak. Bihar arte egongo da zabalik karpa eta zazpi garagardo ezberdin dastatzeko aukera egongo da. Garagardoari laguntzeko, txerri-ukondoa eta saltxitxak dastatzeko aukera ere badago. Eta domekan, Klubaren eguna ospatzeko, jardunaldi berezia egingo da Unbeko rugbi zelaian: 10.00etatik aurrera kirol honen inguruko interesa duten guztiei handik pasatzeko dei egin nahi diete Eibar Rugbi Taldekoek.



# Dultzainaren erritmora hasittako jaixa

Sanjuanetako programaziñuan tradiziño luzeko ekitaldirik badago, hori Lizarrako dultzainerueri egitten jakuen ongietorrixa da. XIX. mendiaren amaieran hasittako kontua izanda be, edade guztietako eibartarrak batzia lortzen daben ekitaldixa da, horretan ez da zalantzarik: urtero-urtero, ekaiñaren 23an, 13.00-etan Estaziño kaliak jendez gaiñezka egitten dau eta hortik aurrera eta Untzagara aillegau bittartian, jendia espaloietan, leiho eta balkoietan pillatu egitten da, jaixeri hasiera emoten detsen dultzainerueri harrera berua emoteko asmuarekin.



**Trenian aillegatzen ziraneko sasoia goguan**

Iaz belaunaldi barrixeri errelebua pasau zetsen Miguel Angel Elizegik ondo baiño hobeto ezagutzen dau holako egunian bizi dan giro berezixa. Eta ez da edozelako testigua, ez horixe: 14 urte zittuala etorri zan lehelengoz Eibarko sanjuanetara, aittari laguntzen, eta harrezkero ez dau behin be kale egiñ. Iazkuak gurian bizi izandako bere 61. sanjuanak izan ziran eta dultzainaren errelebua pasauta be, ez eban jaixa galdu nahi izan. Eta ez da harritzekua, harreria egitten detsen beste eibartar guztiak moduan, urtero hunkituta bizitzen daben ekitaldixa izan ohi dala argi dago-eta.

Sasoi batian dultzaineruak Lizarratik trenian aillegatzen ziraneko egunak goguan, atzera be Estaziñuan egingo jakue harreria. Alkatiak, Udalbatzak lagunduta ongietorrixa emon eta segidan, dultzainak joten hasi bezain pronto, Untzagaraiñoko kalejiria hasiko da. Ehundaka herrittarrekin batera, kuadrillak eta aurtengo omenduak, Sostoa abesbatza, As Burgas Galiziako Kultura Etxeko ordezkarixak eta Eibar Rugbi Taldekuak lagun izango dittue dultzaineruak.

NACEX
Servicio Exprés
MENSAJERIA ZERBITZUA
EIBAR • 943 12 70 00
Urkizu pasealekua 9, behea

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA
Eguneroko ogia

☎ 943 20 40 66 (Ibarkurutze) ☎ 943 20 42 24

GAUR
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren 9, behea 20600 EIBAR
Telefonoa 943 20 62 40 Faxa 943 05 69 23

Mail
Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmail.com • www.industriasmail.com


Eibarbus
Bulegoa: 943 20 17 33
Garajea: 943 17 34 99
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20
eibarbus@eibarbus.com
Isasi 20 - behea
20600 EIBAR
❒ Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
❒ Enpresa eta eskola GARRAIOAK
❒ TXANGOAK
Eibarbus
autobusak


Bizitza
beste kolore
batean ikusteko...
Zentral Optika
Zentral Optika
Ego Gain 2
20600 - Eibar
1997 TIK GEURE-GEUREA
URTEURRENEKO DESKONTUAK
Ondo Pasa SanJuanak !!

# Burua astindu eta gerria mugitzeko aukera

Musikagintzan Eibar hiria munduan zehar zabaldu duen talderik bada, hori Su Ta Gar da. Iaz, 2008an, lehen kontzertua eskaini zutenetik 20. urteurrena bete zuten, eta data hori ospatzeko bira luzea egin ostean, Eibarren arituko dira gaur 23.00etan euren herrikideen berotasuna jasotzeko. Eta zoriona bide batez.

Kontzertua bai, baina batez ere omenaldia. 20 urte eman dituzte oholtza gainean, disko estudioetan orduak eta orduak iragan dituzte, eta oraindik musikagintzan bide luzea dutela ematen badu ere, urteurren berezia ospatzeko denbora iritsi zela pentsatu zuten Su Ta Garrekoek.



20. urteurreneko kontzertuek, errepertorio berezi bat izateaz gain, itxura ezberdin eta berezia daukate Su Ta Garren kontzertu arruntekin alderatuz. Aitor Gorosabel pianoa jotzen ikusi ahal izango da Untzagan, eta Xabi Bastidak gitarra akustikoarekin duen abileziaz gozatu. Horrez gain, beste taldekide biek ere erronkak dituzte kontzertu hauetan. Galder Arrillagak bere anaia Borxak maisuki jotako abestiak gogoratuko ditu; eta Igor Oiarbidek, Asier Osororen lekua betez, 20 urtetako talde honen abestiak plazaratzeko aukera dauka baxuarekin.

Aitor Gorosabelek …eta kitto!-ri azaldu zion bezala, *"Eibarko kontzertua berezia da guretzat"*. 2007ko urtarrilean aritu ziren azkenengo aldiz herrian Su Ta Garrekoak, Ipuruako kiroldegian, baina oraingoan Untzagan eskainiko dute kontzertua. *"Gaztetxoenek gure musikaz gozatzeko aukera dela uste dut, eta jende gehiagorengana iristeko beta daukagu"*. Barixakuan, beraz, 'jo ta ke' Untzaga plazan.













**KONTZERTUAK**
**Ekainaren 19an**
**23.00etan - Su Ta Gar – Untzagan**
**Ekainaren 20an**
**23.00etan – Fundacion Tony Manero – Untzagan**
**Ekainaren 23an**
**23.00etatik 04.00etara – Lisker – Untzagan**
**Ekainaren 24an**
**22.00etatik 23.00etara eta 00.15etatik 02.30etara – Dama orkestra – Untzagan**
**Ekainaren 25**
**23.15etan – Cielito Musika Bandaren berbena - Untzagan**

**Bartzelonako funka**

Zapatuan zita bikoitza izango du musikak. Untzagan 23.00-etatik aurrera Fundacion Tony Manero (FTM) talde bartzelonarra arituko da. Arrakasta handiko talde honek disko-funk estiloa lantzen du, baina rumba, hip-hop, salsa eta soulera jotzen du askotan. 'Looking for la fiesta' diskoarekin egin zen ezaguna talde kataluniarra, batez ere 'Supersexy girl' abestiarekin, publizitate kanpaina batean agertu zelako.

FTM-ko hamar kideek dantza egiteko aukera eskaintzen dute euren kontzertuetan, izan ere, euren musika alai eta jostagarriarekin gerria bakarrik hasten da mugitzen.

**Erromeria eta berbenak**

San Juan bezperan, urtero ohikoa den bezala, Lisker taldeak berbena eskainiko du Untzagan 23.00etatik 04.00etara. Talde eibartarrak talde ezberdinen bertsioak entzuteko aukera emango du, eta nola ez, gorputza mugitzeko ere.

San Juan egunean ere egongo da dantzan egiteko aukera.

Untzagan, berriz, Dama orkestrarekin berbena egongo da 22.00etatik 23.00etara eta 00.15etatik 02.30etara.

Sanjuanei amaiera emateko, azkenik, Cielito Musika Bandaren eskutik berbena egingo da Untzagan 23.15etan. Jaiei amaiera emateko antzinako doinuak interpretatuko ditu bandak.






# Euskal Herritik Latinoamerikara dantzan

Euskal Herriko eta Latinoamerikako dantzak egongo dira ikusgai Sanjuanetan Kezka Dantza Taldearen eta Lacasium elkartearen eskutik. Jaietan zehar, beraz, bakoitzak dantza egiteaz gain, besteek dantza nola egiten duten ikusi ahal izango da.

Kezka Dantza Taldeak zita bikoitza dauka Sanjuanetan. Batetik, ekainaren 19an Untzagan 19.30etatik aurrera egingo den Dantzari Eguna dago. Kezkako 160 dantzarik hartuko dute parte bertan Juan Bautista Gisasola Musika Eskola, eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariek lagunduta.

Dantza eskolako 130 ikaslek Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiako dantzak eskainiko dituzte. Dantza taldeko 30 dantzarik, berriz, Zuberoako maskaradetako dantza sorta bat dantzatuko dute. Aipatu, gainera, 'Axuri-beltza' dantzaren 40. urteurrena ospatzeko eskolako ikasle batzuek dantza hori eskainiko dutela.

**Ekainak 19**
**19.30etan – Dantzari Eguna – Untzagan**
**Ekainak 21**
**19.30etan – Lacasiumen dantza emanaldia – Untzagan**
**Ekainak 23**
**23.00etan – Dantza Garaikidea – Untzagan**
**Ekainak 24**
**23.30etan – Soka Dantza – Untzagan**





Kezkak, bestetik, azken 15 urteotan egin den bezala, Soka-dantza dantzatuko du San Juan egunean 23.30etan. Eibarko San Juanetako tradizio zaharrenetarikoa da soka-dantza, eta gerrak eten bazuek ere, 1944an berriz berreskuratu eta dantzatzeari ekin zitzaion. 1970eko hamarkadan, ordea, galdu egin zen ohitura hori eta ia 20 urtez lozorroan egon zen 1994an Jose Luis Perez Sarasketaren laguntzarekin Kezkak eta Usartza Txistulari Bandak berreskuratu zuten arte. Soka-dantzak Euskal Herriko dantza ezagunenetarikoak dira eta soka-dantzaren zati bat aurreskua da, gaur egun hainbat protokolotan ikusten dena.

**Zapore latinoa**

LACASIUM elkarteak Eibarren bizi diren jatorri Latinamerikarreko emakumeak batzen ditu. Orain urte bi euren herrialdeetako dantzak eskaintzen hasi ziren Sanjuanetan eta aurten ez da gutxiagorako izango. Horrela, ekainaren 21ean, domekan, dantza emanaldia eskainiko dute Untzagan 19.30etatik aurrera. Aipatu, bestetik, dantzen ostean Imanol DJak Latinoamerikako musika ipiniko du.

CORREDURIA COSTAMAR

| | | |
|---|---|---|
| AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA |
| ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN |
| EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK |
| BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK |
| OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA |
| HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA |

Urkizu Pasealekua, 11 - Solairuartea - 20600 - EIBAR
Tel: 943-120437 / Faxa: 943-127180 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

DEBA BEHEKO ELKARTEA
ESKUALDEKO BATZORDE ERAGILEA
UGT Euskadi DEBABARRENA UROLA KOSTA
Sindikatua zuen zerbitzura
*Jai zoriontsuak denontzat*
"Denon Sindikatua"
Isasi, 2 - 1. -EIBAR-
☎ 943 82 07 82
Faxa. 943 82 04 09

KIÑU 2000
BURDINDEGIA
San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926

ELEKTRIZITATEA
Urki s.a.
AUTOEN MEKANIKA
INDUSTRIA
INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
AUTOMATISMOAK
TRANSFORMADOREAK
*Arragueta zeharbidea, 1*
*Tel. 943 12 05 95 / 72*
*Faxa. 943 20 38 53*

# Sanjuanetan ere zuen zerbitzura!!!



























# Jaiak musika doinuarekin

Imajina itzazue San Juan jai isilak. Inolako zaratarik gabe. Inongo musika doinurik gabe. Ezin dituzue imainatu, ezta? Ba lasai, horrelakorik ez da gertatuko-eta aurtengo Sanjuanetan. Izan ere, musika eskaintza zabala dago hiru egunetan zehar, eguneko edozein ordutan.



San Juan bezperari hasiera emateko, Ospittaleko santuari zapia ipini ostean, Usartza Txistulari bandak, beste musikari batzuek lagunduta, Sanjuanetako Zortzikoa eskainiko dute Untzagan hasita. Horrela, herriko kaleak girotzen hasiko dira goizean goizetik, musika hara eta hona eramanez. Arratsaldean, bestetik, Durangotik Sugarri fanfarrea etorriko da herrira. 19.00etatik aurrera kalejira egingo dute Untzagatik hasita arratsalde aldea girotzeko. Iaz ere hemen izan genituen duran
garrak, beraz, ondo ezagutzen dute nolakoa den hemengo giroa eta zer gustatzen zaion hemengo jendeari. Gauean Lisker izango da musikaz Untzaga plaza girotuko duena.



San Juan egunean Ertzantzaren Musika Banda izango da goizean goiz musika jotzen hasiko dena. Bandak San Juan kontzertua eskainiko du Untzagan 12.45etatik aurrera Lizarrako Dultzaineroak lagunduta. Esan Ertzantzaren Musika Banda 1996an sortu zela eta CD bi kaleratu dituela, bata Bergarako Orfeoiarekin batera.

Ekainaren 25an, bestalde, zita bikoitza izango du musikak gure herrian. Alde batetik, musika doinurik ez baina omenaldi bat jasoko dute musikari batzuek, zehazki Cielto Musika Banda eta Usartza Txitulari bandak. Horrela, Auzokoak elkarteak antolatuta Jaiki sozidadean ondo merezitako omenaldia jasoko dute. Bestetik, 23.15etatik aurrera, Cielito Musika Bandak antzinako doinuekin berbena eskainiko du Untzagan.

**Ekainak 23**
**11.00 – Sanjuanetako Zortzikoa Usartza Bandaren eskutik – Untzagan hasita**
**19.00 – Kalejira Sugarri fanfarrearekin – Untzagan hasita**
**23.00etatik 04.00etara – Lisker – Untzagan**

**Ekainak 24**
**12.45 – Ertzantzaren Musika Bandaren kontzertua – Untzagan**

**Ekainak 25**
**23.15 – Berbena Cielito Musika Bandaren eskutik – Untzaga**


– GIDA ETA ARMA-BAIMENAK
– ZIURTAGIRI MEDIKUAK
bide
20 urte zurekin
Arikitxaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501
Aldez aurretik txandarik hartu gabe

api 353
Larragest INMOBILIARIA
Bidebarrieta, 12 Tel.690 61 07 15

*Zuei esker heldu gara dagoeneko mende laurdenera! Eskerrik asko denoi eta...*



*...Sanjuan zoriontsuak!*







Zuloagatarren, 9
Tfnoa. 943 20 17 40

PItxIaK

*25 urte zuekin*

ingeniaritza imh

**IMH Ingeniaritza Eskola**

Oraindik ezagutu gabe?
Elgoibarko unibertsitate mailako ikasketak:

**IMH Ingeniaritza Eskola:**

Goi-mailako zikloaren ondoren
IMHko ingeniaritza ikasi eta lan eginez aldi berean



**Ate irekiak:**

*Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!*

**Uztailak 1:** arratsaldeko 18:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola



# Zure etxe-barruen GESTIOA

- Zeure etxe-barruarentzako aholkularitza eta gestioa kuota txikien truke.
- Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa.

- Edifizio-konponketak.

EGOLAN CB
Nerea Areitio Etxaniz
Goretti Oiarzun Irastorza

**EGOLAN**

Julian Etxeberria 7, 7.-C
(Aldapatxo)

Telefonoa:
943 20 22 39

Faxa:
943 20 01 05

EGOLAN.EIBAR@terra.es



# Danborrada bixak, gero eta jendetsuagoak

San Juan jaixetan urtetik urtera arrakasta gehixago dakan ekitaldiren bat aittatzekotan, ezin dittugu ahaztu herriko kaliak ziherkatzen dittuen danborrada bixak.

Nagusixen danborradia San Juan bezperan, gaberdixan abiatuko da Untzagatik, Cielito Musika Bandak San Juan himnua jo eta gero. Jose Miguel Laskuraiñek zuzenduta, 240 bat lagun alkartuko dira aurten, iaz baiño gehixago eta, gaiñera, antolatzaillien berbetan, *"jende barri eta gaztia"* batu jakue. Konpaiñiak, barriz, azken urtiotakuak: danborra jotzen dabenekin batera, ohikurari jarraittuta, batelerak eta sukaldarixak juango dira eta eureri laguntzen Betikuak/Gaste, San Andres, Urki, Amaiñ Emon eta gastadoriak. Urteroko ibilbidiari jarraittuko detse denak. Karrozan Sostoakuak juango dira, abesbatzaren 25. urteurrena dala-eta.





**Ikastetxe guztietako umiak**

San Juan egunian, 19.00etatik aurrera egingo dan umien danborradan 374 umek hartuko dabe parte, iaz baiño gehixagok. Herriko ikastetxe guztietako haurrak batuko dira danborradan eta karguak, barriz, urtetik urtera ikastetxe batetik bestera txandakatzen juaten dira. Aurten Amaña herri ikastetxeko umieri tokatzen jakue karguko postuetan juatia. Danbor nagusixa Iker Narbaiza izango da, Napoleon Ibon Hernando eta zaldi gaiñeko banderaduna, barriz, Miriam Petite. Karrozan juango diren neskak, barriz, honek dira: Naroa Asurmendi, Paula Fernández, Miren González, Maialen Laso, Nerea Gutiérrez, Leire Albizu, Alaitz Cobo, Ane Dávila, Nerea Olabarri, Enara Zufiria, Ione Arakistain, Monika Sarasketa, Miren San Martin, Laura Pagoaga, Leire Saiz eta Marina Lahidalga. Horrez gain, eskola bakotxak bere zuzendari eta banderadunak eukiko dittu.

Urkizutik hasitta, honako ibilbidia egingo dabe: Arragueta igo eta Ibarkurutzen gelditTu ondoren, Errebal, Julian Etxeberria, Toribio Etxebarria pasau eta Untzagan pregoia irakorri ondoren, alardiarekin amaittuko dabe.




# Kaxkajo kuadrillia jaixak animatzeko prest

Jaixetan parte hartzeko asmua daken kuadrillak agenda bete-betia izango dabe datozen egunotan: martitzenian dultzaineruerí ongietorrixa emotera juan aurretik, 12.00xetan ekingo detse ekitaldixeri, Untzagan alkartuta. Ondoren, Urkizuraiño juango dira kalejiran, Furgo-Farrarekin eta bertan saldia eta txorizua banatuko dittue Gaste Giro Alaia Suspertzeko Taldekuak. Txupinazuan eta txanpanadan parte hartu ondoren, arratsaldian atzera be batuko dira, 17.30xetan, zezen plazaraiño juateko. Han kuadrillen arteko jokuak egingo dittue, 18.00etatik aurrera eta 21.00ak arte. Eta San Juan Txiki egunian, 14.00etan Untzagan egingo dan herri-bazkarixan be han izango dira kuadrilletako gaztiak, bazkalostian karaokian eta txiste eta irrintzi lehiaketan parte hartzeko prest.





**Kaxkajo, Tuenti eta Facebook-en**

Bestalde, Gaste alkartekuak esan deskuenez, *"Tuenti eta Facebook sare sozialen aukerak probatzen dihardugu Eibarko Sanjuanen jarraipena egitteko. Kaxkajo kuadrillen maskotiari perfilla sortu detsagu eta, informaziñua zabaltziaz gaiñ, argazkixak konpartitzeko be erabilliko dogu. Iaz sanjuanak.com webgunia sortu genduan eta bideo eta argazki batzuk sartu genduazen. Horrekin batera, jendiak argazkixak igotzeko tresna ipiñi genduan martxan eta gure webguneaz gaiñ, …eta kitto! Euskara Elkartiaren Bixamona aldizkarirako erabili genduazen argazkixak. Esperientzia politta izan zan. Sanandresetan, barriz, Tillate fenomenuaren bidetik, hori erabili genduan San Andres bezperako 700 argazki sareratzeko. Iñun iragarrita ez eguan arren, egunian bertan bisita mordua euki genduazen".*

Eta hasi barri dittugun jaixetarako Kaxkajori apelliduak ipiñi (San Juan Eibar) eta perfilla sortu detse: Tuentin 769 lagun dittu eta Facebook-en 372 eta egunero doiaz lagun barrixak gehitzen.

Horrez gain, Facebook-en bertan 'Sanjuanak Eibarren' orrixa sortu dabe eta honezkero 286 zale dittu, *"spameatuak izateko prest. Sare sozialen bidez jaixen gaiñeko mugimendua suspertzeko helburua dakagu".*






# AUTOEN



22. zkia.

...eta kitto!
aldizkariaren
gehigarria

# gehigarria

# Diru-laguntza bereziak erosleentzat

**AUTOMOBILA EROSTEKO ASMOA DUENARENTZAT** ez da sasoirik egokiena, ekonomia arloan dagoen krisia dela-eta. Gauzak horrela, estatu mailan saldu ezinda dauden automobilei nolabaiteko irteera emateko eta, bide batez, jendea automobila erostera animatzeko asmoarekin, 'Plan 2.000 euros' izenekoa ipini zuen Espainiako gobernuak. Laguntza horiek iragarri zituenean hainbatek, tartean Euskadiko Autonomia Erkidegoak, ez zituen begi onez ikusi gobernuak arlo horretan zituen planak, baina azkenean EAEko gidariek ere badute laguntza hori aprobetxatzeko modurik.



Automobila erostera animatzen direnei, beraz, ibilgailuaren prezioan gutxienez 2.000 euroko beherapena aplikatuko diete. Diru-laguntza hori Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta automobil fabrikatzaileek elkarrekin finantziatutakoa da eta, beraz, automobila erosten den lurraldearen arabera aldaketak daude.

Edozein modutan, diru-laguntza hori automobil berria zein bigarren eskukoa erostean jaso daiteke. 30.000 eurotik beherako prezioa duten eta kutsadura txikia eragiten duten automobilak erostean aplikatu daiteke laguntza. Dena dela, eta azken urtean automobilen salmenta kopuruak etengabe behera egiten joan dela kontuan izanda, fabrikatzaile gehienek pozik hartu dute ekimena eta askok deskontu handiagoak eskaintzen dihardute. Beraz, ohikoak baino eskaintza hobeak aurkituko dituzte erosleek diru-laguntzen planak irauen bitartean.


MAPFRE
JUAN LUIS GARMENDIA
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
San Juan 7, behea ☎ 943 203 413
Faxa: 943 200 324 -EIBAR-

ACITAIN, S. A.
Zerbitzugunea
AVIA
24 ORDUKO ZERBITZUA
Gasoleoen zuzeneko banaketa
Garbiketa automatikoa eta presioarekin
Tel. 943 12 16 62 Faxa. 943 12 18 62 acitain@wanadoo.es

Tailer ad profesionalak


Ego Gain, 4 - behea
Tel. 943 20 34 45
EIBAR
(San Andres pasealekutik)
ZEZEN BIDE
AUTO ESKOLA

TAILER MEKANIKOAK
VALDI
Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Talleres VALDI
Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASOLEOEN BANAKETA
Kantoi
20.000 L.
2.000 L.
Otaola etorbidea, 13 -Bis

ZORKI
AUTOAK BEHAR DUEN GUZTIA
Otaola 7 EIBAR Tel. 943 70 21 31

LOURDES URZURIAGA
887 ZENBAKIDUN DELEGATUA
MAPFRE ASEGURUAK
AUTO ASEGURUAK
JUBILAZIO PLANAK
INBERTSIO FONDOAK
ETXEBIZITZA ASEGURUAK
Sostoa, 1 - behea (EIBAR) lurzuri@mapfre.com
943 820 449 Faxa: 943 208 653 Mobila: 607 401 929

ruibal
alquiler de vehículos
ZAMABAKO ETA BIDAIARIENDAKO (6tik 9 plazarainoko) FURGONETAK
HARTZEKO ETA LAGATZEKO ZERBITZUA
GURE FURGONETAK EROSTEKO AUKERA

943 17 62 60
www.ruibalalquilerdevehiculos.com

RAC VASCO NAVARRO
R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza
J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

Torrekua, 2
20600 EIBAR
Tel. eta Faxa.
943 20 62 48
Tel.
943 20 70 31
eseibar@facilnet.es
ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.
AVIA
FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA
Uda honetan
milaka izar IRABAZTEKO!!!
Club AVIA
Aurrezten lagunduko dizugu, CLUB AVIArekin batera
EGIN ZAITEZ BAZKIDE DOAN

GIDATZEKO KARNET GUZTIAK
Estaziño 8
SOLOZABAL
autoeskolak
Tel. 943 70 23 84

# Automobila bidaiatzeko prestatu

**URTE SASOI HONETAN ASKOK OHIKOAK BAINO BIDAIA LUZEAGOAK EGINGO DITUZTE.** Segurtasuna areagotzeko neurriak urte osoan garrantzitsuak badira, are garrantzitsuagoak dira horrelako sasioetan. Horregatik, oso komenigarria izaten da, azken unera arte itxaroten egon barik, denboraz ibili eta garajera bisitan joatea, automobilari goitik beherako errebisioa egiteko. Mekanikoek ondo baino hobeto jakiten dute zeri begiratu, baina badaezpada jarraian aipatuko ditugun puntuei arreta berezia eskaini:



- Ibilgailuaren mekanika ondo dagoela ziurtatu, batez ere balaztak.
- Haizetako-garbigailua eta kristal termikoa ondo funtzionatzen dutela begiratu.
- Ibilgailuaren argi guztiak ondo begiratu.
- Balazten likidoaren eta olioaren mailak neurri egokian daudela konprobatu. Hotz handiko tokiren batera joateko asmoa duenak, berriz, izotz-kontrakoari ere begiratu.
- Ibilgailuaren osagai guztiak ondo garbitu, norberak ondo ikusi ahal izateko eta besteek ere ondo ikusteko moduan izateko.
- Erroberak egoera onean daudela ziurtatu.
- Erroberentzat eta argientzat beharrezkoak diren ordezko piezak eta horiek aldatzeko resnak eraman.
- Derrigorrezkoak ez izan arren, gomendagarria da larrialdietarako linternaren bat eta bestelakoak eramatea.
- Eta aipatutako guztiez gain, ohiko aholkuei erreparatu: gasolina-depositoa bete, bidaiatzeko jantzi erosoak ipini eta behar bezain beste aldiz geratu, atseden hartzeko, batez ere automobilean umeak edo pertsona nagusiak badoaz.




PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ad AUTO Aurrera KONPONKETAK

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

kutxadura laguntzak



Fiat Panda 5.790€
Fiat Bravo 12.390€
Fiat Punto 7.390€

Gutxiago hobeago da

FIAT-ecoplus+ BONUS + PLAN 2000E

www.fiat.es

HOGEI, S.A. Eibar.
Bittor Sarasketa, 7 Tel. 943 12 06 49




CARROCERIAS

Lantalde profesionala Ardura handiz egindako konponketak 1.000 m² instalazioetan

KOKAPENA





# Ekipajea ondo kokatzearen garrantzia

**BATEK BAINO GEHIAGOK BURUHAUSTE EDERRA IZANGO DU** urtero, egun batzutarako etxetik kanpora joan eta maleta, motxila eta beste enparau guztiak automobilean sartzeko ordua ailegatzean. Ekipajea kokatzeko orduan urrezko legeari jarraitzea oso garrantzitsua da: gauzak edozein modutan sartzen ahalegindu aurretik, tartetxoa hartu daukazuen tokia aztertu eta sartu beharrekoak modu egokienean nola kokatu daitezkeen pentsatzeko. Batzuetan hori nahikoa izango da automobilaren espazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.



Gaur egun familientzat pentsatuta dagoen edozein automobil hartuta ere, maletategiak handiak izan ohi dira. Zer esanik ez automobila todoterreno edo furgoneta itxurakoa baldin bada!

Hala ere, behin eta berriz azpimarratzen dute ekipajea ondo kokatzea benetan garrantzitsua dela eta kontua ez da txantxetan ibiltzekoa: izan ere, ekipajea txarto kokatuta joateak gure segurtasunari zuzenean eragin diezaioke. Horregatik, ahal izanez gero, sartu beharreko guztiak maletategian sartzen ahalegindu. Gauzak kokatzeko orduan, bakoitzaren pisua eta tamaina kontuan hartu eta oreka bilatu, pisu guztia ibilgailuaren alde batean ez geratzeko. Onena, pisutsuenak hasieran sartzea izaten da, grabitate-zentrua behean geratzeko. Ondoren, geratzen diren tarteak aprobetxatu. Horrela, batak bestari eutsiko dio.

Eta automobil gainean zerbait eraman behar izanez gero, kontuan hartu bisibilitateari traba egiten dioten elementurik ez egotea. Eta automobil barruan ezer solte ez eramaten, ezustean automobila geratuz gero barruan doazenei zauri larriak egiteko arriskua saihesteko.


- AUTOEN GARBIKETA
- DENDA

AVIA

**HAMBRE gasolindegia**

Goitondo z/g

943 17 27 96 48269 Mallabia Bizkaia

AUTOMATISMOS

LEONARDO

AGIRRE ELEKTRIZITATEA

Errebal, 14 - behea

EIBARKO AUTO-ESKOLA AITZINDARIA

Telefonoa. 943-201500

Julian Etxeberria, 7 - behea

ARRATE

auto-eskola




Epeetara finantzatutako karneta
zuk aukeratutakoaren arabera
INTERESERIK GABE

Ikastaro trinkoak

GOIZEZ 09.00etatik 13.00etara
ARRATSALDEZ 16.00etatik 20.00etara

ARRATE GIDARIEN ESKOLA

# Egitarau herrikoi, euskaldun eta parekidea txosnetan

Txosna gunean egitarau berezia antolatu da aurten ere Sanjuanetarako. Antolatzaileen helburua argia da: "Eibarko jai herrikoi, euskaldun eta parekideen alde egitea". Berbaz berba hori da ekimenaren xedea, baina badago beste bat ere: herriaren partehartzea sustatzea. Helburu horien baitan hainbat ekintza antolatu dituzte ekainaren 19, 20 eta 23rako.

**Ekainak 19**
**20.00etan – Txosnen irekiera**
**23.00etan – DJ Besamotz**
**eta irudi proiekzioak**

**Ekainak 20**
**18.00etan – Terraza**
**Partehartzailea**
**23.00etan – Eraso**
**eta NaizRoxaren kontzertua**

**Ekainak 23**
**13.00etan- Dultzaineroei**
**ongietorria**
**Txupinazoa eta gero –**
**Herrian zehar poteoa**
**14.30etan – Herri Bazkaria**
**Bazkalostean – Jolasak**
**Jolasak eta gero – Kalejira**
**herrian zehar**
**00.30etan – San Juan Sua**
**01.00etan – Erromeria 'Laket'**
**taldearekin**

Txosnak gaur bertan irekiko dira 20.00etan. Hori da, behintzat, antolatzaileen asmoa. "Egun osoko lana eta gero, txosnak irekitzea espero dugu ordu horretarako". Gauean, berriz, irudi eta musikak hartuko dute txosna gunea. 23.00etatik aurrera DJ Besamotzek mota guztietako musika eskainiko du beste musikari batzuekin batera eta, horrez gain, irudi proiekzioak egingo dira.

Zapatu arratsaldeko 18.00etatik aurrera Terraza Partehartzailea antolatu dute. Ideia berria da hau eta Txosna Guneko arratsaldeko giroari bultzada ematea da helburua. Horrela, "musikaz, antzerkiaz edo, besterik gabe, elkarrizketaz gozatu ahal izango da".

Gauean, berriz, kontzertuen ordua heldu-ko da. Lehenik NaizRoxa talde pasaitarra arituko da. Punketik soulera doan musika gogor bezain dibertigarria lantzen dute pasaitarrek, doinu aldagarri zein bereziak lortuz.

NaizRoxaren ostean Euskal Herrian hain ezaguna den Eraso taldea izango da txoznetan. Euskal Herriko metal talderik garrantzitsuenen artean azaltzen dira zarauztarrak eta hainbeste urtetan zehar eskainitako indarrarekin datoz Eibarrera. 1996tik maketa bi eta lau diska kaleratu dituzte, eta 'Kontra' izenekoa da azkena. Zarauztarren lan borobilena da azken hau eta diskako abestiez gain, garai guztietako kantak eskainiko dituzte.



Ekainaren 23an Gazte Eguna ozpatuko da. Eguerdiko 13.00etan Dultzaineroei ongietorria egingo zaie, eta txupinazoa eta gero poteoa egingo da herrian zehar. 14.30etan Herri Bazkaria egingo da Txosna Gunean (tiketak salgai Monteka, Buenos Aires eta Kultu tabernan, 12 eurotan kamiseta barne). Bazkalostean jolasak egingo dira eta, ondoren, kaljira herrian zehar.

Gaueko 12.30etan San Juan sua piztuko da txosnetan eta 01.00etatik aurrera Laket taldearen eskutik erromeria egongo da.

ISASI OKINDEGIA
LANTEGIA
- Elgetako bidea 9
943 70 07 77
DENDAK
- Ego-Gain, 2
943 20 23 40
- Zabaleta (Bidebarrieta, 10)
943 20 02 25
- Tiburtzio Anitua, 25
- Urki, 15
- Miguel de Aginaga

eitek
Soluciones Tecnológicas
www.eitek.net
EITEK S.L.
Erakusketa: Bidebarrieta kalea 50
Zerbitzu teknikoa: Urtzaile z/g
(Aurrera eraikina, 2. lokala)
www.eitek.net
Bezeroarendako telefonoa
943 203090

# Herriko hainbat talderi omenaldia

Urteetan Eibarren alde egin duten taldeak omenduko ditu Sanjuanetan Eibarko Udalak. Normalean talde bat izaten da omendua, baina aurtengoan lau taldek jasoko dute herritarren beroa.

Aipagarriena, agian, Su Ta Gar musika taldeak jasoko duena da. Lehen kontzertua eskaini zutenetik 20 urte pasa dira eta, hori ospatzeko, Untzagan kontzertua eskainiko du gaur talde eibartarrak 23.00etatik aurrera. Miguel De los Toyos alkatearen berbetan, *"Eibarko luxuzko enbaxadoreak izan dira eta heldu da eurei omenaldia egiteko ordua; grabadore bola jaso zuten atzo".* Ez da hau, hala ere, Su Ta Garrek jasoko duen omenaldi bakarra. Izan ere, …eta kitto! Euskara Elkartearen ekimenez San Juan Sua piztuko dute.





Beste omendu bi 25 urte bete dituzten Sostoa Abesbatza eta As Burgas Galiziako Etxea dira. Urteurrena ospatu eta zorionak emateko modu ezinhobea izango da, bai abesbatza, bai elkarte galiziarrarentzat. Pregoiaren ardura, gainera, Sostoakoena izango da. Beraz, eurena izango da azken berba jaiei hasiera ematen dien txupinazoa jaurti aurretik. Talde bi hauek, Su Ta Gar bezala, San Juan Sua pizten egongo dira hilaren 23an 23.30etatik aurrera Untzagan.

Sostoa eta As Burgasi, bestetik, Eibar Rugby Taldea elkartuko zaie Dultzaineroek Estaziño kaletik udaletxera egiten duten bidean. Ohorezko 'B' Mailara igotzea lortu dute aurten errugbilari eibartarrek, beraz, ondo merezitako omenaldia jasoko dute herriko jai nagusietan. De los Toyos alkateak adierazi zuen moduan, "aurtengo denboaldian kirol arloan poztasun bakarra eman digun taldea izan da Eibar Rugby Taldea, zer nolako poztasuna gainera".









# Belaustegi Baserria



JATETXEA

ELGOIBARko San Miguel gainean



Bere 10. urteurrenean
eskerrak eman nahi dizkie Eibarko bezero guztiei eta San Juanak ondo baino hobeto ospatzeko

Informazioa
Erreserbak:
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com



## San Juan 2009 Menu Berezia

- Aperitiboa.
- Antzara foie-moussea, pureekin.
- Leka-entsalada epela, ahatearekin.
- Otarrainxkak plantxan.
- Abakando bieira gainerrea, zigalatxo-saltsarekin.
- Azpizuna, Pedro Ximenez saltsarekin.
- Postrea: gazta-goxua gereziekin.
- Kafea.

Prezioa: 38'50 euro + BEZ + edaria

Portxe-jardinean bazkaldu eta afaltzeko aukera

Ostiral eta larunbatetan, 22.00etatik aurrera kopak jardinean

# Matrikula

EKAINAREN 29tik UZTAILAREN 3ra

Uni

## UNI EIBAR



**Otaola Hiribidea, 29**
20600 EIBAR
**Tel.** 943 20 84 44
**Faxa.** 943 20 31 96
uni@iesunibhi.com
**www.iesunibhi.com**

## UNI ERMUA



**Ongarai Auzoa**
48260 ERMUA
**Tel.** 943 17 62 57
**Faxa.** 943 17 64 50
uni@iesunibhi.com
**www.iesunibhi.com**



## GURE ESKAINTZA

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Merkataritza
Administrazio Kudeaketa
Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Nazioarteko Merkataritza
Administrazio eta Finantzak
Informatika-Aplikazioen Garapena
Gorputz eta Kirol-ekintzen Animazioa
Informatika Sistemen Administrazioa

**Lana eta Etengabeko Prestakuntza*
**Erasmus eta Leonardo Programak*

### BATXILERGOA

Giza eta Gizarte Zientziak
Zientzia eta Teknologia

# Zer dira Sanjuanak su barik?



Ohiturak agintzen duen moduan, ekainak 23ko gauean San Juan Sua piztu behar da. Eibarren …eta kitto! Euskara Elkartea aritzen da hori antolatzen eta euren esku egongo da aurten ere sua piztea. Hala ere, ordu laurden lehenago Eibarko Dantza Garaikideko neskek zita honetarako apropos prestatutako dantza eskainiko dute Untzagan.

…eta kitto! Euskara Elkarteak, aurreko urteetan egin den moduan, hainbat lagun gonbidatu ditu sua piztu dezaten, omenaldi bezala. Su Ta Gar da gonbidatuetariko bat 20 urte bete dituen heinean; Sostoa abesbatzak 25. urtebetetzea ospatu du, beraz, hau ere gonbidatua izan da; eta hauekin batera As Burgas Galiziako Etxea, mende laurdena bete duelako honek ere. Hiru hauei sua pizten laguntzeko, bestetik, Miguel De los Toyos alkatea, Javier Zorrakin Jai Batzordeko zinegotzia eta Juan Barahona …eta kitto! Euskara Elkarteko presidentea egongo dira.



Antolatzaileen berbetan, bestetik, kontu handia izan behar da sua pizterako orduan. Suaren gainetik salto ez egitea eskatzen da, mesedez. Horrez gain, su garretara zerbait botatzerako orduan suarekiko distantzia egokia mantentzea erregutzen da.

Gaueko 23.00etan, sua piztu aurretik, Eibarko Dantza Garaikideko neskak arituko dira dantzan. Urteroko moduan, San Juan Suaren inguruan ibiltzeko dantza berezia prestatu dute Nerea Lodosaren neskek, ordu laurdenez Untzagako gradak betetzen dituzten pertsonei eskaintzeko asmoz.

Urtetik urtera dantzak aldatzen dituzte, eta emanaldi ikusgarri zein koloretsua eskaintzen dute suaren inguruan. Dantza Garaikideko taldea adin ezberdinetako neskek osatzen dute, umeekin hasi eta helduen taldeetara iritsi arte. Horrela, neska dantzari ugari bilduko da San Juan Suaren inguruan.

**SAN JUAN SUA**
**Ekainak 23**
**23.00etan – Eibarko Dantza Garaikidea (Untzagan)**
**23.30etan – San Juan Sua (Untzagan)**









# Sanjuanetan ere zuen zerbitzura!!!


GURE LEKU

Isasi, 3
20600 EIBAR
☎ 943 20 71 89

TXURRUT

...GIRO ONEAN etorri eta ondo pasatu sanjuanetan

- Pintxoak
- Kafe bereziak
- eta musika onena...

zabalik goizeko 9.00etatik

San Juan, 4 AC
EIBAR

943 20 61 43

bar aldatz

ALDATZ taberna

Martxa nahi baduzu... Zatoz! Zure zain gaude

San Juan, 3

ALBERTO taberna

Razioak
Pintxo beroak
Txanpiak

Juan Gisasola, 10    943 702 589

EL AMBIGÚ CAFE

Kazuelitak, pintxoak, plater konbinatuak, katering-a enkarguz

Julian Etxeberria 12
Tel. 943 20 00 47

Taberna - Snack
POZKARI

Pintxo beroetan eta hotzetan espezialistak

J. Etxeberria 11
EIBAR
☎ 943 70 20 37

Kili Kili

ESPEZIALITATEAK:
- Gosariak
- Plater konbinatuak

Egunero goizeko 07.00etan zabaltzen dugu

☎ 943 20 24 01

ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!!

real

bar manuel
(JUANITO)

Urkizu, 5    943 12 16 57

Bar Ego-Gain

EIBARREN, ANBULATEGIAREN AURREAN



Goizeko 07.00etatik zabalik
GOSARI ETA PINTXOETAN
ESPEZIALIZATUAK



# Sanjuanetan, kalea eszenatoki

**Sanjuanetan egiten duen beroarekin ekintza gehienak, ia guztiak kalera irtetzen dira. Kontzertu, dantza eta bestelako ekitaldiek herriko plaza eta kaleak betetzen dituzte ahalik eta jende kopuru handiena hartzeko asmoz. Antzerkia ere kalera irtetzen da, Eibar eszenatoki bihurtuz.**

Sanjuanetan kalean zehar ibiltzea abentura bilakatu daiteke. Ez bakarrik bertan aurki daitekeen jende ugariarengatik ere, mundu eta istorio zoragarriak ikus daitezkeelako. Sanjuanetan antzerkia kalera ateratzen da eta kaletarrei momentu onak pasarazten diete aktoreek.

Azken urteetan bezala, aurten kale antzerkia egiten duten hainbat konpainia etorriko dira Sanjuanetara, hiru zehazki (beste bat San Pedroetan arituko da, En la lona taldearen 'Mementu Ridikuli'): Potxin eta Patxin, Hortzmuga eta Ganso&Cia.

Lehen kale antzerki saioa Potxin eta Patxin konpainiak eskainiko du ekainaren 22an, astelehena, 20.00etatik aurrera. Taldeak 'Egipton Gertatuak' antzezlana eskainiko du, umeei zuzendurikoa. ETBn hainbatetan azaldutako bikote hau Egiptora joango da antzezlan honetan eta asto baten gainean momentu latzak biziko ditu. Egarri eta bero handiarekin, ez dira zuzen pentsatzeko gai izango, baina hango piramideek harritu egingo dituzte. Horrelakoak eraikitzen saiatuko dira publikoaren laguntzarekin, baina lortuko al dute?

Hurrengo egunean, ekainaren 23an, Hortzmuga antzerki talde famatuari iritsiko zaio aukera. Untzagan arituko dira 19.30etatik aurrera jaiak girotzen, iaz eta aurreko urteetan bezala. 1989. urteaz geroztik dihardu Hortzmugak antzerkia egiten, eta ordutik hona antzerki aktiboaren baitan eboluzionatu dute. Hiru dira talde honek



dituen asmoak antzerkia egiterako orduan: animazio kulturala manifestaldi sozialarekin batzea, elkarbizitza eta probokazioaren artean dagoen hiri-esparruan lan egitea, eta egunerokoa iraultzea errealitate berri bat sortzeko.

EGOKOP, S.L.L.
FOTOKOPIAK - LASER - KOLOREA
PLANOEN ERREPRODUKZIOA
ENKUADERNAZIOA - PLASTIFIKATUAK
FAX ZERBITZUA - CD-TIK INPRESIO
DIGITALA Z/B - PEN-DRIVE-TIK
INPRESIO DIGITALA Z/B
EGOKOP, S.L.L.
Bidebarrieta, 46 - behea
311 postakutxa 20600 EIBAR
Tel. eta Faxa: 943 20 86 12
egokopsll@euskalnet.net

INFORMATICA ibarra
MATERIAL INFORMATIKOAREN SALMENTA, KONPONKETA ETA MANTENUA
Isasi, 15 - behea
inforibarra@terra.es
943 12 71 77
Faxa. 943 70 14 82

MANDIOLA GARRAIOAK
Ondo pasa jaixetan!
Areitioko gailurra
Tel. 943 17 60 30
Faxa. 943 17 48 30
138 Postakutxa
48260 ERMUA

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak
Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea
– ERANTZUKIZUN ZIBILA
– AUTOAK
– BIZITZA ETA JUBILAZIOA
– OSASUN ASEGURUA
– ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
– ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.
emilio.toyos@catalanaoccidente.com
Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908



Hortzmugaren eskaintza zabala da: Metro bateko ametsak (duela gutxi Eskolarteko Antzerki Jardunaldietan eskaini zutena), Superplast, Zirko Iluna, Consules de la calle, Momento eta 12k. Hortzmugaren 20. urteurren honetan kalitatea ez zaio falta konpainiari, ezta egiten dituzten antzezlanei ere.

**Renato: zirko-gizona**

San Juan egunean, bestetik, Ganso&Cia izango da Untzagan arituko dena. 18.00etatik aurrera 'Renato' antzezlana eskainiko du konpainia honek, ume eta nagusiak engantxatzen dituen ekitaldia. Berezia da Renato, protagonista, eta baita antzezlana ere.

Iberiar faunari buruzko entziklopediak argitaratzen dituen argitaletxe batean egiten du lan Renatok, eta bizitza gris eta aspergarria darama bere amaren babesean. Renatok ez zuen inoiz arropa aukeratu, ez zen emakumeekin ibili, ezta bere etorkizuna erabaki ere, baina bere amaren heriotzak dena aldatzen du. Renato gauza batetaz ohartzen da: zirkoa maite du.

Amaren heriotza jasateko Teletienda ikustea besterik ez zaio bururatzen Renatori, baina han bere bizitzaren norabidea aldatuko duen zerbait aurkitzen du: Mega Zirkus Kita. Mezulariak plaza erdian ematen dio bere eskaria, jendez inguratuta. Orduan konturatuko da Renato zirko gizona izatea ez de-

**Ekainak 22**
**20.00etan – 'Egipton Gertatuak', Potxin eta Patxin - Untzagan**
**Ekainak 23**
**19.30etan – Hortzmuga – Untzagan**
**Ekainak 25**
**18.00etan – 'Renato, Ganso&Cia - Untzagan**



ERREHABILITAZIO ZENTRUA
*Zentruko sendagilea: Ricardo Ibarra*
- Errekuperazio funtzionala
- Fisioterapia ariketak

Eibarko Patronatua

- Osakidetzarekin konkordatutako Zentrua
- Mutua eta Aseguru guztiekin egiten dugu lan

Urkizu 9 / Tel. 943 12 12 80 / Faxa. 943 12 03 58 / 20600 EIBAR

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
OBERENA HARATEGIA

# Eskintza barrixa suzko erroberetan

Urtietan Pirotecnia Zaragozana enpresakuak euki dabe San Juan jaixetan suzko erroberak eskintzeko arduria eta euren ikuskizunak ondo ezagutzen dittugu hamen herrixan. Aurten, baiña, programako nobedadietako bat



hain zuzen be suzko erroberetan topauko dogu: hillaren 24ko gabekuak Zaragozakuak botako dittue, baiña hurrengo egunekuak Astondoa pirotekniak eskinduko deskuz.

Pirotecnia Zaragozanaren moduan, Astondoa piroteknia bizkaittarrak be luzaruan dihardu suzko erroberen munduan biharrian: 1885. urtian Eustaquio Astondoaren eskutik sortutako enpresia Luki Astondoa haren semiaren eskuetara pasau zan. Pirotekniarekin zerikusixa zeken kontuekin arduratuta, Valentziarako bidia hartu eban, han polborarekiko betidanik egon dan kulturak erakarritta. Han kolore, tiro eta petardosoken efektuen gaiñeko ezagutzan sakontzeko aukeria euki eban eta berak enpresia lagatzeko ordua aillegatzerako, haren seme Eustaquio eta Andonik segidu eben negozixuarekin. Eta holan, suzko errobera eta horrekin lotutako ikuskizuneskintzan etenbariko barrikuntzak sartzen juan diran arren, enpresak gaur egunian be Astondoa famelixaren eskutan se-



gitzen dau, Izaskun Astondoa gaur eguneko zuzendarixa Eustaquioren alabia da-eta.

Pirotecnia Zaragozana, barriz, estatu maillan arlo honetan biharrian diharduenen artian aitzindarixa da eta tradiziñuari eusten jakin daben arren, gaur egunian sortzen dittuen ikuskizunetan punta-puntako teknikak erabiltzen dittue, beti be sasoian sasoikora moldatzeko ahalegiñari jarraittuta. Kasu bixetan goi maillako ikuskizunak eskintzen eskarmentu haundixa daken profesionalak etorriko jakuz gure jaixetako gabak kolore bizixekin argitzera. Premixo ugari jasotakuak dira bixak eta, alde horretatik, eskinduko dittuen suzko erroberen kalidadia ziurtatuta dago. Baietz barriro be bat baiño gehixago aho-zabalik geratu?

CENTRONET
TINTORERIA ECOLOGICA
garbitegi industriala
etxez-etxeko zerbitzua doan
BIDEBARRIETA, 42
TEL. 943 20 42 63

Jauregui
MENAJEA - KRISTALA - OPARIAK
San Agustin 4 - Tel. 943 20 16 47 - EIBAR

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala
miren albistegi sojo
arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330
20600 eibar

Gure Egitekoa:
Munduko
Maitasun
Guztia

SANTA MARINA
ASISTENCIA DOMICILIARIA
tlf. 943 530 699
Egiguren-tarren, 12


Lanerako gertu!
ESKAINTZA AKADEMIKOA
MGEP
•Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
•Informatika Sistemen Administrazioa
•Proiektu Mekanikoen Garapena
•Mekanizazio Bidezko Produkzioa
•Industri Ekipoaren Mantenimendua
ETEO
•Administrazioa eta Finantzak
•Idazkaritza
•Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna
GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2009-2010
MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gep
eteo
ETEO, KOOP. E.
www.eteo.mondragon.edu
Izenematea
Ekainaren 1etik 12ra
Matrikulazioa
Ekainaren 29tik uztailaren 3ra


ASTELENAN
Ekainak 24, 17.00etan
ERRESERBAK
661 259 009
TXARTEL LEHIATILAN
egun berean:
12.00/13.00 eta
15.30etatik aurrera
Txapeldunen
jaialdia
aspepelota.com

# Errekortadore eta enbolauak zezen-plazan

Iaz harridura eta sentsazioa sortu ostean, aurten ere Errekortadoreen jaialdia egingo da Sanjuanetan. Aspaldi ez zela horrelakorik egiten herrian, baina iaz berriz berreskuratu zen eta oso zapore ona utzi zuen hara hurbildu zirenen artean.

Eibarko zezen-plazak Euskal Herriko errekortadore onenak jasoko ditu ekainaren 21ean 18.00etatik aurrera eta publikoari, gutxienez, ia bezain beste gozatzeko aukera emango die. Bertara joan ahal izateko, bestetik, sarrera ordaindu behar izango da. Beraz, jauzi, iskin eta beste teknikak ikusi ahal izateko, umeentzako prezioa 3 eurokoa izango da eta nagusientzat 6 eurotakoa. Sarrerak York, Txoko, Trinkete, Zubi-Gain, Ongi-Etorri, Ametsa, Arkupe eta Leo tabernetan egongo dira eskuragai.

Errekortadoreak ez dira izango, hala ere, zezenaren atzetik ibiliko diren bakarrak. Izan ere, ekainaren 21ean eta 24ean 08.00etan eta 23an 19.30etan enbolatuak izango dira zezen-plazan. Tradizioa bilakatu den ekintza honetan edonork hartu dezake parte, animalien aurrean jartzeko ausardia badauka behintzat.

Gizakiek protagonismoa izango dute, baina ez dira bakarrak izango, zezen eta bigantxek ere zeresana emango dutelako. Bai Errekortaodoreen Jaialdian, bai enbolauetan arituko diren animaliak Marques de Sakarenak izango dira. 1987an sortu zen Marques de Saka eta Euskal Herri osoko jaietan ibili dira bertako animaliak.

Aipatu, bestetik, hauek izan daitezkeela zezen-plaza honetan Sanjuanetan egiten diren azken ekintzak. Izan ere, zezen-plaza berritzeko asmoa dauka Udalak, beraz, egitekotan beste plaza berri batean egingo lirateke honelako ekintzak.



**Ekainak 21**
**08.00 – Enbolauak – Zezenplazan**
**18.00 – Errekortadoreen jaialdia – Zezenplazan**

**Ekainak 23**
**19.30etan – Enbolauak – Zezenplazan**

**Ekainak 24**
**08.00 – Enbolauak- Zezenplazan**



ailaproiektuak@hotmail.com
Elgeta kale, 1 AC
AILA
Proiektuak eta Eraikuntzak
943 53 03 91 - 943 53 03 92 (faxa)
670 95 78 00 - 647 42 63 52







OBRA BURUTZE PROIEKTUAK
OBRA OSOA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ETXEBIZITZEN ERREHABILITAZIOA
FATXADEN ERREHABILITAZIOA
HOBI SEPTIKOEN GARBITZEA
HODIETAKO BIDEO-IKUSKARITZA





# Sanjuanetan ere zuen zerbitzura!!!





















RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.  Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra doktoreak





**ZERBITZUAK:** **Ortodontzia / Protesiak / Inplanteak**
**Hortz-estetika / Haurrentzako tratamendua**



## Eibarko XXV. xake lehiaketa 27an

**AZKEN URTEETAN JOSE MARI KRUZETAREN OMENEZ** egiten ari diren Eibarko XXV. Xake Lehiaketa ekainaren 27an jokatuko da Untzagan 16.00etatik aurrera. Euskal Herri osotik eta mugetatik haratagoko taldeak etorriko dira herrira partida azkarren txapelketa jokatzera. Jokalari bakoitzak 5 minutu izango ditu, beraz, partiden ikusgarritasuna handiagoa da.

Jon Arana Deporreko Xake Taldeko kideak aipatu bezala, *"partida politak ikusi ahal izango dira"*. Txapelketaren ospea azpimarratuko luke, gainera, Aranak. *"Euskal Herri osotik, Logroño eta Castro Urdiales bezalako herrietatik jendea etortzea da horren erakusle"*.

**Emaitza eskasak asteburuan**

Aurreko asteburuan Groseko Openeko azken aurreko txanda jokatu zen eta Diego Olmo eta Edu Olabek euren partidak galdu ostean, Julen Garrok berea irabazi zuen. Elgoibarren, aldiz, Deporreko taldeak 10. postua lortu zuen.

Domekan, bestetik, KUTXA Txapelketa jokatu zen Beasainen eta 7. postua lortu zuten alebinen finalean Edu Olabek gidatutako eibartarrek.







## Pelota Txapeldunen Jaialdia Sanjuanetan

**SAN JUAN EGUNEAN TXAPELDUNEN JAIALDIA** egingo da Astelena frontoian 17.00etatik aurrera. Bertan, Juan Martinez de Irujo buruz buruko txapeldun berria eta Mikel Beroiz 2. mailako buruz buruko txapeldun berria bikote bezala arituko dira. Horien aurka, bestalde, Xala edo Gonzalez, eta hauetariko baten atzelari moduan Pascual arituko dira. Goi-mailako pelota neurketa, beraz, goi-mailako egun batean.

## Ipuruako gimnasta bi Ponferradako Espainiako txapelketan

**MAIDER JIMENEZ ETA HELENA JAUREGI** dira Ipurua gimnasia erritmikoko taldeko ordezkariak Ponferradan jokatuko diren Espainiako txapelketetan. Biek hartuko dute parte senior mailan, aroa, pelota eta zinta modalitateetan. Susana Prieto entrenatzailearen iritziz, finalerako sailkatzeko aukerak dituzte biek. Domekan, bestalde, Sanjuanetako urteroko erakustaldia egingo dute Untzagan.






## Gipuzkoako Federazioko sariak Arrateko jokalarientzat

**ARRATEKO HIRU ORDEZKARIK JASO ZUTEN** herenegun Donostian Gipuzkoako eskubaloi federazioak denboraldi amaieran banatzen dituen sarietako batzuk. Horrela, jubenil mailako Xabier Luke, kadete taldeko Jon Azkue eta Fernando Fernández entrenatzailea izan ziren galardoi hori jaso zutenak bertan egindako ekitaldian.

## Pelota saio bi Astelenan bihar

**PELOTAK EGUN HANDIA BIZIKO DU BIHAR ASTELENA** frontoian. Goizean, Klub Deportiboak antolatuta, San Juan Txapelketako finalak jokatuko dira 10.30etatik aurrera. Lau eta erdian Etxaniz eta Bengoetxea arituko dira elkarren aurka, eta bikoteetan Zubizarreta-Portu eta Arrillaga-Perez. Gainera, pelota eskolako 7 eta 11 urte bitarteko umeek partida bina jokatuko dituzte euren artean.

Arratsaldeko 17.00etan, berriz, Deba Arroko Txapelketaren finalak egongo dira jokoan. Kadete eta jubeniletan Bergara eta Arrasate ibiliko dira nor baino nor, eta nagusietan Elgeta eta Elgoibar. Pelota batzordekoek txapelketa honen maila handia dela uste dute. Bestetik, sarrera doanekoa izango da. Bai goizeko, bai arratsaldeko partiduak ikusteko.



## Squash taldearen aurkezpena

**MARTXOTIK DEPOR BARRUAN DAGOEN SQUASH** taldea aurkeztu zen martitzenean. Hainbat lagun urteak daramatzate kirol honen praktika herrian sustatzen eta hainbat txapelketa antolatu dituzte orain arte. 30 bazkidetik gora dauzkate eta astean birritan umeak entrenatzen dituzte.

Sanjuanei begira, bestetik, Eibarko VI. Txapelketa antolatu dute. Euskadiko Ligaren barruan dago lehiaketa hau eta Euskal Herriko jokalari onenak etorriko dira herrira. Neurketak Ipuruako kiroldegian jokatuko dira gaur (18.00etatik aurrera) eta bihar (09.00etatik aurrera, eta finala 18.30etan).





## Urkiko neskak Leioan garaile

**NESKEN URKI FOBALL TALDEAK LEIOAKO** VI. Nesken Txapelketa jokatzera joan ziren joan den zapatuan. Bertan, Urkiko gazteenek txapelketa eskuratu zuten, finalaurrean Errioxako selekzioa penaltietan atzean utzi eta finalean Lauro ikastetxeari 2-0 irabazi ostean. Epaileak partiduaren amaiera pitatu orduko poza nagusitu zen urkitarren artean. Hauek izan ziren txapelketa eskuratu zuten foballariak: Cristina Arratibel, Maria Calvo, Leire Garate, Maitane Basterra, Irune Jimenez, Laura Prieto, Ane Fernandez, Jone Amas, Ainhoa Bilbao eta Helene Oiarzabal.

Urkiko infantilek, bestetik, ez zuten txikienek bezain arrakasta handia izan. Pauldarrak taldearen aurka jokatu zuten lehen neurketa, eta hasiera batean aukerak izan bazituzten ere, lehen gola sartu orduko besoak jaitsi zituzten 3-0 amaitu arte. 3. eta 4. posturako partiduan, bestetik, 1-0 galdu zuten eibartarrek. Talde hau aurkeztu zuen Aritz Iparragirre entrenatzaileak txapelketea honetan: Alejandra Rodriguez, Lorena Arias, Teresa Carmona, Naiara Lete, Aroa Losada, Irati Murgoitio, Ainhoa Larruskain, Ione Bengoa, Natalia Rodriguez, Asma Ourdi eta Ane Atristain.


25 urtetik gorako esperientziak bermatzen gaitu

etxedreams®
COLCHONERIAS

Isasi, 23 (EIBAR) 943 20 25 74
Izelaieta, 2 (ERMUA) 943 17 70 41

EROSKI
Otaola hiribidea, 5
Tel. 943-820472
ZORIONAK!

EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
JOSE VICENTE PEROSANZ
Mª LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006
Urtzaile, 1 20600 EIBAR egurenyasoc@sarenet.es

Grow 13 14 Eibar
Lanparak
Balantzak
Haziak
Pipak
Opariak
Lorrea
Zilarra
Grinder
Urki Kalea 21 (tealtza aldei 2) Tlf. 943531909


Ikaskideak
gurekin sartzen dira
MARIKOIA deitzen digute...
+tu
gehitu
InfAsis
INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA
Teléfono: 943 45 17 22
infasis@gehitu.net


Erosketetarako
eta aisialdirako
hiria
EIBAR
EIBAR
CENTRO COMERCIAL ABIERTO
MERKATARITZA GUNE IREKIA
aiie

## Escuderia Eibarren emaitza diskretuak asteburuan



**GORLAKO IGOERAREN XVIII. EDIZIOA JOKATU** zen joan den asteburuan Bergaran eta Vilariño Motorsport taldeko Iñigo Martinez (Silver Car S-2) izan zen garailea. Escuderia Eibarko kideek, berriz, ezin izan ziren aurreneko postuetan kokatu. Aitor Arrieta (Renault 5 GT Turbo) bederatzigarren izan zen, Joseba Garcia (Renault 5 GT Turbo) hamairugarren eta Jesus Maria de la Fuente (Peugeot 205 Turbo) hamazortzigarren. Aipatu, bestetik, Cristian Perez eibartarrak (Opel Corsa GSI) hogeita bederatzigarren postuan amaitu zuela bere lehen lasterketan.

Aurreko asteburuan Peugeot 207 THP Koparen II. Meetinga ere egin zen Jaramako Zirkuituan (Madril). Bertan, Escuderia Eibarko Ruben Lapuentek hamargarren postua lortu zuen lehen lasterketan eta bederatzigarrena bigarrengoan. Horrela, hamargarren postuan kokatzen da Peugeot 207 THP Koparen sailkapen orokorrean.



## San Juan waterpolo txapelketaren estreinaldia

**HERRIKO JAI NAGUSIAK DIRELA APROBETXATUZ**, Urbat-Urkotronik taldeak I. San Juan Waterpolo Txapelketa ipini du martxan. Lehen edizio hau egun bakarrean jokatuko da, bihar hain zuzen ere, Ipuruako kiroldegian 14.00etatik aurrera (Orbeako kiroldegi berrian egitea zen asmoa, baina ezin da horrela izan).

## Gazte Duatloiak arrakasta izan zuen



**EKAINAREN 7-AN, DOMEKAN, EIBARKO I. GAZTE DUATLOIA** egin zen. Horrela, hiru mailatan banatuta (aurre-benjaminak, benjaminak eta alebinak) 127 umek hartu zuten parte herriko kaleetan zehar egin zen lasterketa honetan. Hiru txandatan atera ziren umeak eta Toribio Etxeberria, Zuloagatarren, Plaza Barria eta Fermin Kalbeton kaleak koloreztatu zituzten.

Eibar Triatloi Taldeak antolatutako lasterketa honetan hauek izan ziren irabazleak: aurre-benjaminetan Paul Bereziartua Plaza (Mugarra TE), Andoni Egurrola Areta (San Andres) eta Txomin Osoro Gutierrez (Mogel Isasi). Antolatzaileek, bestetik, eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile eta parte-hartu zuten umeei.



# Euskal ohiturak indartuz



Herri baten barrenean dauden ohitura eta usadioak ulertzeko, askotan, kirolei begiratzen zaie. Izan ere, kulturen isla dira kasu gehienetan eta Euskal Herriaren kasuan, zehazki, horrela da guztiz. Ohitura horiek indartzeko asmoz, Euskal Jaialdia egiten da Sanjuanetan Untzaga plazan. Bertan, herri kirol ezberdinak lantzen dituzten pertsonak aritzen dira plaza betetzen dutenei euren abileziak eta, bide batez, euren kulturaren zati bat erakusten.

**Ekainaren 25ean**, beraz, **19.00etatik aurrera** harrijasotzaile eta aizkolari ezberdinak bilduko dira Untzagan emanaldia eskaintzeko asmoz. Alde batetik, Ernesto Ezpeleta 'Bihurri', Jose Ignacio Flores, Jesus Olaizola Agite eta Jesus Gisasola 'Zelai II.a' aizkolariak aritu-ko dira. Ekintza ezberdinak egingo dituzte laurek, horrela, taldetan banatuta hainbat zirkuitu egingo dituzte. Gainera, Agitek bertikalean moztuko du enbor bat eta Bihurrik motoserrarekin aulki bat egingo du enbor batetik abiatuz.

Berritasun bezala, aurten Bihurri eta Zelai II.aren semeak ere arituko dira enborrak mozten. 7 eta 12 urte bitartean dauden mutikoak dira, baina aizkolaritzarekiko zaletasuna zainetan daramate. Aizkolariez gain, bestetik, hiru harrijasotzaile ere ibiliko dira Untzagan: Agustin Arruti 'Landarbide', Juan Jose Unanue 'Goenatxo' eta Zelailuze. Esan behar da azken hau Euskal Jaialdian arituko den lehen aldia dela.

Antolatzaileen berbetan ez da aldaketa handirik izango beste urteko edizioekin alderatuz, horrela, ohitura den bezala, Ziriako Ortiz de Zarate arituko da esatari bezala. Hala ere, aipatu behar da formula honek arrakasta handia daukala, Untzaga plaza jendez gainezka egoten delako urtero.

Aurten ere arrakasta izatea espero dute Euskal Jaialdiaren antolatzaileek. "Euskal ohitura eta usadioak indartu eta mantentzeko modu bat da". Eskaintza ez da, bada, gutxiesteko modukoa.

BAi Si
CAFETERIA
Urkizu, 11
Tel. 943 12 09 89

VIVALDI PUB
PUB Vivaldi
Eibarren
San Juan, 9
SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK

deportiboko taberna
Afariak, kazuelitak, pintxoak
T. Etxebarria 16
943 20 70 44

CHALCHA JATETXEA
RESTAURANT CHALCHA
Menu bereziak
banketeak
despedidak...
JAI ZORIONTSUAK
ISASi, 7
TEL: 943 20 11 26

TUNEL-PE bar
Plater konbinatuak
Pintxoak
Ogitartekoak
San Juan 3
☎ 943 700 641

Plater konbinatuak, razioak, kazuelatxoak, afariak eta bazkariak enkarguz
EGUNERO eguneko platerrak
T. Etxebarria 16
Tel. 943 82 13 41



## Goruntz abesbatza Nueva Yorkera

**SAN JUAN JAIAK APROBETXATUKO DITUZTE** Goruntz abesbatzakoek, urtean behin kanpoan abestera joateko bidaia egiteko. Oraingoan urruti doaz, gainera: ekainaren 21ean Nueva Yorken emango dute kontzertua, hango Euskal Etxean. Aurretik St. Patric's katedralean ospatuko den mezan abesteko aukera izango dute. Hilaren 20tik 27ra bitartean egongo dira Goruntzekoak eta haien lagun eta familiakoak Nueva Yorken, 40 bat lagun guztira.

## Pintura ikastarokoen erakusketa

**GAUR ARRATE KULTUR ELKARTEAN PINTURA IKASTAROAN** jardundakoek erakusketa inauguratuko dute Topalekuan, 19.00etan. Ekainaren 28ra arte martxan egongo den erakusketa ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta jai egunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.





## Artikoko irakasleak Armerian bisitan

**AURREKO ASTEAN SUEDIA, NORVEGIA ETA FINLANDIAKO** mugan dagoen Övertornea eskualdean dagoen Artikoko Fundazio Profesionaleko irakasle taldea Eibarren izan zen, besteak beste Armeria Eskola bertatik bertara ezagutzen. Izan ere, ikastetxe bien arteko elkarlana bultzatzeko asmoa dute. Horrez gain, Eibarko Museoa eta Tekniker ezagutzeko aprobetxatu zuten egonaldia.
















Eibarko triatloilariak. Ezkerrean, Ane Ziaran.

## Uniren 40. urteurren jaia

**HILAREN 27-AN OSPATUKO DUTE** Unibertsitate Laboralaren 40. urteurren jaia: 10.00etan hasiko dira ekitaldiak, parte hartuko dutenei egingo zaien harrerarekin. Ondoren hildako ikasleen omenezko meza egingo da, 12.30etan aretoan ekitaldi akademikoa egingo dute, 13.30etan talde-argazkia aterako dute eta, jarraian, 13.45etan gimnasioan aperitiboa hartu ondoren, 15.00etan bazkaltzen hasiko dira.



## Alberto Zubiaurre IMHn saritua

**GAUR EGUERDIAN ELGOIBARKO MAKINA-ERREMINTA** Institutuan banatu dituzten IMH Sarietan Alberto Zubiaurre eibartarrak eskuratu Produkzio Bidezko Mekanizazioko ikasle onenari ematen duten saria. Albertok 1.000 euroko ikasketa-poltsa irabazi du. Diru hori ikasten jarraitzeko edo ikasketekin lotutako bestelakoak erosteko-eta erabili ahal izango du irabazleak. Aurten amaitu ditu ikasketak Albertok eta Mail enpresan egin ditu praktikak.

## Kanpoko igerilekua zabaldu dute

**IPURUA KIROLDEGIKO KANPOKO IGERILEKUA** zapatuaz geroztik erabiltzeko moduan da. Irailaren 20ra arte zabalik egongo den igerilekua egunero egongo da zabalik, goizeko 10.30etatik 20.00etara. Oraingoz, igerilekua eta instalazioa aurtengo uda sasoirako garbitu eta prestatu baino ez dute egin, baina behin aurtengo denboraldiari agur esanda, eguzkia hartzeko tokia handitzeko beharrei ekiteko asmoa dutela aurreratu dute Kirol Patronatuko arduradunek.

**Orbea kiroldegia**

Bestalde, azkenean aurreikusitako epearen barruan inauguratuko dute Orbea kiroldegia: astelehenerako dago aurreikusita inaugurazio ekitaldia eta hortik aurrera martxa normalean zabaltzea da asmoa. Egunotan instalazioak probatzen jardun dute horretarako aukera izan dute Kirol Patronatuko 300 bat abonatuek.

## Maite Zuñiga nagusi `Supervivientes´ saioan

**TELECINCO TELEBISTA KATEKO SUPERVIVIENTES** reality-showaren azken edizioko garailea Eibarren 1964an jaiotako Maite Zuñiga izan da. Madrilen bizi den atletak 200.000 euro eskuratu ditu, Honduraseko hainbat irlatan hamaika probari aurre egin ondoren.





*Ana Arostegui*
ABOKATUA

– Familia
– Alokairuak
– Jabetza horizontala
– Senar-emazteak
– Herentziak

F. Calbetón, 19 - 1. ezk.
Tfnoa. eta Faxa: 943 70 12 06

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

*Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...*

IFAR KALE 8
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR


**BENITO MARTINEZ IDIAKEZ**

1. urteurrena
2008/VI/17



*Zure irribarrea gogoratzen dugu*
*Zure izaera are gehiago miretsi*
*Zure adorea ozenki aldarrikatu*
*Eta negar malkotan adierazi:*
***"Merezi izan du zu bezalako pertsona bat gure alboan izateak. Mila esker, aita, senide eta lagun zaren horri"***

*Maite zaitugu*

*ZURE SENIDE, KIROLDEGIKO LAGUNAK ETA KUADRILA*

# Sanjuanetako jarraipena Sanpedroetan



San Juan eta Sanpedroen artean ez da etenik egongo aurten. Izan ere, egutegiaren beharrei egokitzeko, ekainaren 26an hasiko dira Sanpedroak eta 29an amaitu. Horrela, berez azken egun hau bada San Pedro ere, aurreko asteburuari etekina atera nahi zaio ekitaldi ezberdinak antolatuz.

Ekainaren 26an, barixakua, goizean goizetik egongo da jaigiroan murgiltzeko aukera, izan ere, 12.00etan San Pedroko toka eta Igel Txapelketa egingo da. Arratsaldean beste lehiaketa bi, oraingoan Tute eta Musekoak, 17.00etan. Ordu berean umeentzako txokolate-jana egongo da eta 18.00etan umeentzako jokuak. 19.00etan, berriz, Gorriti eta bere abereek Karmen kaleko parkea hartuko dute. Eta eguna ezin hobe amaitzeko, musika pixka bat Musika Eskolako Mariachiarekin eta Voces y Cuerdas taldearen eskutik 22.30etan Urkizun.



Zapatua ere kargatuta dator egitarau aldetik. Horrela, hilaren 27an 12.00etan aizkolari eta harrijasotzaileen erakustaldia egongo da Bihurriren eskutik eta, ordu berean, igeltoka txapelketaren sari banaketari ekingo zaio. Indarrak hartzeko, berriz, piskolabisa egongo da13.30etan.

Arratsalde eta gau aldean musika eta dantzarako aukera luzatuko da. 18.00etan Duo Plaentxik emanaldia eskainiko du, 19.00etan En la Lona antzerki taldearen eskutik 'Mementu Ridikoli' umeentzako antzerkia egongo da ikusgai, eta 22.00etan dantzaldia hasiko da Tukan taldearen eskutik, Karmen kaleko parkean.

Domeka eta astelehenean atsedena hartzeko beta izango du jendeak, baina martitzenean, ekainaren 29an, San Pedroko meza eta konjuroa egingo dira Akondia Baserrian 11.00etan. Azkenik, egitarauan sartzen da baita ere uztailaren 5ean Ipuruako bolatokian jokatuko den Eibar Hiriaren XXIII. Bolo-Jokoaren finala.

Oinetakoak
Tribeka
Zuloagatarren, 7
Tfnoa. 943 20 62 24

josi ta josi
konponketak eta jostun lanak
Zezenbide, 2
Telf. 943 254 640

OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTAIA
Zabala Comercial
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6ac
Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@euskalnet.net
HOSTELSHOP
CAMIR

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, JUGATX, hillaren 25ian bost urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.



Ongi etorri, LIBE, hillaren 10ian jaixo ziñan-eta. Zorionak amatxo Iraide, aitatxo Gonzalo eta Umari.



Zorionak, NEREA Ereña Ogiza, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eta muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AIMAR, gaur bost urte egitten dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ENEKO, zure hirugarren urtebetetzian. Guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, EKHI, San Juan egunian urtebete egingo dozulako. Muxu potolua aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, NAROA, astelehenian bost urte beteko dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, JONE Penedo Aiastui, 23an bost urte egingo dozuz-eta. Ondo pasau! Famelixaren partez.

## JAIOTAKOAK

- **Nora Mujika Aguado.** 2009-VI-8.
- **Salma Samadi.** 2009-VI-10.
- **Rubí Valdés Valdés.** 2009-VI-11.
- **Beñat Hernández Arce.** 2009-VI-12.

## HILDAKOAK

- **Justo Lejardi Madariaga.** 86 urte. 2009-VI-11.
- **Cecilia Aldalur Etxeberria.** 86 urte. 2009-VI-14.
- **Sara Iglesias Mojón.** 84 urte. 2009-VI-15.
- **Justina Barrenetxea Arizaga.** 94 urte. 2009-VI-16.

## farmaziak

***19, barixakua***
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

***20, zapatua***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

***21, domeka***
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***22, astelehena***
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

***23, martitzena***
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

***24, eguaztena***
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

***25, eguena***
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

***26, barixakua***
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

***27, zapatua***
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ ***Alberdi*** *(Zubiaurre, 9)*

***28, domeka***
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ ***Aranburu*** *(Gipuzkoa etor., 46)*

***29, astelehena***
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ ***Cortina*** *(Zubiaurre, 29)*

***30, martitzena***
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ ***Ugarte*** *(Sta. Zezilia, z/g)*

***1, eguaztena***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ ***Ibarrondo*** *(Zeharkalea, 2)*

***2, eguena***
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***3, barixakua***
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

AKONDIA
Albaitari Zentroa
Julen Arano / Mª Jesus Blanco
Bittor Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15

K21
MUGICA
ITURGINTZA
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA
San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

AtaI honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Urkizu aldean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoi bi eta despentsa. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Igogailua eta elbarrituentzako plataforma. Tel. 605-765618.

– Eibarko erdialdean pisua salgai. 130 m². 3 logela. 2004an guztiz berriztua. Aukera ezinhobea pisu handiagora aldatzeko. Tel. 626-203838.

– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

## 1.2. Errentan

– Eibarren pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira eta berriztu berria. Deitu 15.00etatik 16.00etara eta 21.00etatik 22.00etara. Tel. 943-208683. Maria.

– Bidebarrieta 28an pisua alokagai. Logela bi. Tel. 652-764566.

– Eibarko erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 685-753512.

– Eibarko behe aldean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 690-980846.

– Eibarko erdialdean logela alokatzen da. Tel. 686-286110.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 663-451436.

– Logela alokagai. Tel. 605-771995.

# 2. Motorra

## 2.1. Salgai

– Renault Clio RL 1.2 salgai. 55cv. Urdina. 1998koa. 123.700 km. Tel. 686-703907.

– Yamaha Fazer 600cc salgai. 4 urte. Egoera onean. Tel. 650-284303.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Isasiko aldapan garajea salgai. Tel. 669-947125.

## 3.2. Errentan

– Garajea eta trasteroa alokagai Errebalgo etxe berrietan, Merkatu Plazaren ondoan. Tel. 687-800230.

– Asua-Errekan hainbat neurritako lokalak alokagai. Tel. 600-236789.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.

– Haur Hezkuntza ikasten diharduen neskak umeak zainduko lituzke ekaina eta uztailean. Esperientzia. Tel. 626-752117.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, kamarera moduan edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 617-056828.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Tel. 638-711269.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna moduan. Esperientzia. Tel. 638-482478 edo 638-732436.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero moduan... Tel. 671-358513.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 626-954671.

– 31 urteko emakume eibartarra eskaintzen da abuztuaren 7ra arte edozein lanetarako. Tel. 659-651010.

– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 18.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 626-670510 edo 616-397348.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 648-143804.

– Neska eskaintzen da egun erdiz umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Urteetako esperientzia. Tel. 616-727433. Amaia.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta informeak. Tel. 626-335024 edo 943-254459.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 627-540583.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-265293.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195 edo 943-531903. Aida.

– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko edo nagusiak zaintzeko. Interno edo externo. Tel. 677-112824.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako arratsaldero ordu bi. Tel. 648-196651.

– Emakumea eskaintzen da astelehen, astearte eta ostegunetan 14.00etatik 18.00etara garbiketa lanak egiteko. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-476869.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-690415.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-555959.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo asteburuetarako. Tel. 669-966611.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 690-025580. Jose Pérez.

– Neska eskaintzen da arratsaldez garbiketa lanak egiteko. Tel. 690-791689.

– Mutila eskaintzen da furgonetarekin banaketa egiteko edo igeltsero moduan. Tel. 650-513412.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 676-008346.

– Emakume euskalduna nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Asteburuak barne. Tel. 676-876408.

– Emakumea eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko. Tel. 943-530132 edo 645-735116.

– Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 638-482478. Lorena.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 699-653874.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 650-744497.

– LH duen eta Haur Hezkuntza ikasten diharduen neskak umeak zainduko lituzke. Tel. 659-709334.

– Mutila eskaintzen da banatzaile, igeltsero-laguntzaile edo sukaldari-laguntzaile lanetan jarduteko. Tel. 657-237818.

– Mutila eskaintzen da banatzaile, igeltsero-laguntzaile edo sukaldari-laguntzaile lanetan jarduteko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.

## 4.2. Langile bila

– Kamarera/o eta sukaldari laguntzailea behar dira Arraten. Tel. 677-638184.

– Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Birentzako ohea (1'50x1'90) salgai, alboko lau kaxoirekin, eta Pikolin koltxoia. 1.100 euro. Oheko arropa opari. Tel. 943-202174.

– Aplike bi eta lanpara jokora salgai, baserrikoak (80 euro). Baita gaueko-galana (50 euro). Tel. 943-202174.

– Logelarako armairu txikia (1'80x0'35x0'60) salgai. Gaztainondokoa. 100 euro. Gortinak opari. Tel. 943-202174.

– Autorako Kenwood markako CD-irratia salgai. Oso prezio onean. Tel. 666-648317.

– Waeco markako auto edo furgonetarako izozkailu termoelektrikoa salgai. 32 litro. Tel. 666-648317.

## 6.4. Bestelakoak

– Ume-jaioberriarentzako bigarren eskuko kotxea erosiko nuke. Tel. 609-918803.

– Ume-jaioberriarentzako bigarren eskuko kotxea erosiko nuke. Tel. 696-717968.



iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria

koipea MURRIZTU muskulu-ehunari EUTSI
ildaskak KENDU muskulatura INDARTU




## Laser depilazioa




BONOA 5 saioekin
30 minutuko masajea
edo erreflexologia OPARI

5 saio 150 euro
30 euro saio bat

BEGIBISTAKO EMAITZEKIN
LEHENENGO SAIOTIK

## BETILEEN LUZAPENA




50 €

Aurpegiaren fotogaztetzea. Antizelulitikoak eta gorputza sendotzekoak. Opari bonoak. Masajeak. Mikropigmentazioa. Solariuma.

# CAPI

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Zimurrak (Botox). Mantxak.
Barizeak-Couperosis.
Azido hialuronikoa. Bitaminak.

# INDA iturgintza



## UR, GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOAK

- Industrietarako instalazio bereziak
- Fuel Airea
- ...
- Proiektuak eta aurrekontuak

- *Bainu eta sukaldeen erreformak*
- *Gas instalatzaile baimendua*
- *Iturgintza (arlo guztiak)*
- *Gasa eta kalefakzioa*
- *Altzari erakusketa*

**Telefonoak:**
943 12 18 64
(tailerra)
669 29 34 63
(mobila)
**Faxa:**
943 12 18 64

**Asua-Erreka, 2**

fontaneriainda@euskalnet.net

**Klase teoriko zein praktikoak** norberak nahi dituenean

Klase teorikoak **ikusentzunezkoen abantailak** erabilita

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko **nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak** lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO KARNET GUZTIAK

SOLOZABAL autoeskolak

**Estaziño kalea, 8**

**Tel. 943 70 23 84**



eibartarren irribarrea pizten

Bista Eder

**Inplantologia eta Estetika**

Bista Eder Hortz Klinika
bista eder, 19 - behea
943 70 00 82 / 943 20 84 75